



ARAKALDOKO TOKIKO AGENDA 21 EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA



Dokumentuaren izenburua:	ARAKALDOKO TOKIKO AGENDA 21 1 Dokumentua. Sintesi diagnostikoa
UT21 Nerbioi-Ibaizabal	UTE Ondoan, S.Coop. Haizea Ikerketa S.L.
Laguntza teknikoa:	
Jasotzailea:	ARAKALDO
Parte hartu duten udalak:	Arakaldoko udala Arrankudiagako udala Arrigorriagako udala Etxebarriko udala Galdakaoko udala Orozkoko udala Ugao-Miraballeseko udala Urduñako udala Zaratamoko udala Zeberioiko udala
Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoa	UT21 Nerbioi-Ibaizabal
Orrialdeak:	34
Hizkuntza:	Euskara
Bertsioa:	Behin betikoa
Entrega data:	2012ko iraila

AURKIBIDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA.....	7
AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA.....	9
HELBURUAK.....	10
LAN PROGRAMA	11
ARLO TEMATIKOAK.....	12
EBALUAZIO GLOBALA ETA LEHENTASUNEZKO ESKU-HARTZE JARDUERA ESPARRUAK	13

LABURPEN EXEKUTIBOA

Jarraian, Diagnostikoaren ondorio nagusienak adierazten dira:

GIZARTEA ETA EKONOMIA

Arakaldok azken urte hauetan **etxebizitza erakarpenera foku** bilakatzea lortu du, modu honetan azken hamarkadetakoa biztanleriaren beherakada progresiboa geldiaraziz eta populazio gazteago bat lortuz, nahiz eta pertsona helduen kopurua nabarmena izaten jarraitu.

Industria-sektorea da pisurik handiena duena udalerrriaren ekoizpenean eta lan okupazioan, baina beheranzko joera batekin. Era berean, hirugarren sektorearen eta eraikuntzaren sektorearen pixkanakako goranzko joera eta nekazaritza-sektorearen desagerpena ematen delarik. Udalerrian finkatutako industriak eta populazioaren tamaina txikiak gainontzeko udalerriek baino BPG per capita handiagoa izatea ahalbidetzen dute.

Arakaldo Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko udalerrien artean **euskalduna den biztanleria gehien** duen laugarrengo udalerrria da, eta goranzko joera batekin ez dena erabilera antzematen kalean eta udal administrazioan batez ere. Horrek esan nahi du euskararen ezagutzan eta, batez ere, eguneroko bizitzako euskararen erabilera bultzatzen duten politikak bultzatuz eta aurrera eginez jarraitu beharra dagoela.

Kirol eta kultur jardueren garapenerako guneak egokitzea, berritzea eta balioan ipintzea udalerrriaren erronka garrantzitsua da eta baita antolatutako kultur eta kirol gertaeren eskaintza eta gizarte erantzun handiagoa bermatzen duen Udal eta gizarte eragileen arteko **jarduera koordinatuen** garapena ere.

Gizarte ongizateko politikak indarberritzea, gizartearen, lanaren eta udalerrriaren arloetan **genero berdintasunaren** bultzadarako zeharreko ekintzen garapena, biztanleriaren artean Informazio eta Komunikazio Teknologien ezaguera eta erabilera handiagoa lortzea eta Irisgarritasun Plana garatzea gizarte ongizate egokia erdiesteari begira betetzeke dauden erronkak dira.

Etxebizitzaren zaharberritzea sustatzea eta birgaitetarako zein energi iraunkortasunerako diru laguntzei buruzko informazioa indartzea, eraikita dagoen ondarearen kontserbazioa, hobekuntza eta erabilera eraginkorra lehenetsiz, etxebizitza politikaren arloan kontutan hartu beharreko lehentasunak dira.

LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK

Arakaldo, Nerbioi ibaiaren eskuinaldeko gain batean kokaturik, **luzapen txikiko** udalerrria da bizitegi-lurzorua bi zatitan banatua daukalarik bideetako eta trenbideetako azpiegiturak direla eta. Udalerrri honetan lurzoru urbanizaezinak lurraldearen zati handia hartzen du, bere **paisaian basoak** dira gailentzen direnak eta jabego pribatukoak batez ere.

Arkitektura intereseko eraikinen gehitzea, arkitektura-ondarearen elementuen zaharberritzea, Elexalde-Madariaga nukleoaren indartzea eta industria lurzoruen erabilera aldaketa **udal planeamenduen** berrikuspenean kontutan hartu beharko dira.

Gorbeia-Ganekogortako korridore ekologikoak eta bere indargetze eremuak ia udal mugatze guztia okupatzen du, non pasai interesgarriko kokalekuak dauden, bereziki ur-ibilguekin erlazionaturik, hala nola, babestutako eremuak zeinen babesa, kontserbazioa eta balioan jartzea **natur ingurunearen** antolamendu eta kudeaketarako aspektu garrantzitsuak diren.

Bere inguru funtzionalarekin dituen **errepide bidezko komunikazioak** onak dira, baina inguruko herriekin errepidezko garraio publikoak medio dituen loturak eskasak dira, bai autobus eta bai trenaren kasuan, eta horrek oinezkoen zirkulazioan eta ibilgailu pribatuarekiko alternatiboa den mugikortasunean zailtasunak ekartzen ditu, oinarritzko zerbitzuekiko irisgarritasunak udalerrriaren mugikortasun-dinamikak baldintzatzen dituela kontutan hartuz.

Nahitaezko eskaera da **udalerriranzko irisgarritasunaren hobetzea** lortzea, biztanle gehien dituen nukleoak sartzeko bide bakarra baitaika ibaiaren gainetik pasatzen den zubi baten bidez eta zubi honen bidea oztopatuz gero isolamendu-egoera bat emango litzateke. Udalerriko puntu desberdinetara eta ekipamenduetara iristeko **mugikortasun** baldintzak hobegarriak dira. Udalak aurreikusita dauka oinezkoen eta bizikletazkoen mugikortasunari loturiko azpiegituren hobekuntzarako jarduerak nahiz ekimenak bultzatzea eta baita ere landa bideen inbentarioa egitea.

BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

Arakaldo zuzenean arduratzen da **uraren zikloaren kudeaketaz**, non kontsumitutako eta banatutako ur bolumenen erregistroa eta kontrola hobetzera eta horniketaren eta saneamenduaren optimizaziora bideratu behar diren esfortzuak.

Urteko biztanleko hondakinen sorrerak beheranzko joera erakusten du, era berean hondakinen berreskurapen portzentajea hazi egin delarik azken urteetan, hondakinen banaketaren hobekuntzan aurrera egiten jarraitu beharra dagoen arren informazio fidagarriago bat lortzeko beste gauza batzuen artean. Hondakinen banaketa hobetu beharreko alderdi bat da, agente guztien sentikortzea azpimarratuz, biztanleriarentzat neurri pizgarriak indartuz, administrazioaren etsenpluzko papera eta etxe-hondakinentzat bakarkako edo taldeko konpost-sistemak sustatuz.

Udalerrriaren energi egiturak, EAEko beste udalerrri askorenaren antzekoa, erregai fosilen erabilera handia eta Berotegi Efektuko Gasei (BEG) eginiko ekarpen nabarmena dakar berekin. Beraz, arlo honetan sakontzea udalerrriak duen beste erronka handietako bat da, ez soilik maila publikoan baizik eta baita maila pribatuan ere. Era horretara iturri ez berriztagarriekiko menpekotasuna murriztuko da eta BEGen murrizketari ekarpena egingo zaio. Etendurarik gabeko **hornidura-elektrikoa** ziurtatu eta energia berriztagarrien eta kale argiztapenaren eraginkortasunaren garapena lanean jarraitu beharreko zeregin lehenenak bihurtu dira.

SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNEKO KOORDINAZIOA

Partaidetza kultura nahiz kontzientzia komunitarioa sortzen duten partaidetza egitura berrien sendotzeranzko bidean aurrera egitea hasiberria den prozesua da baina fruituak jasotzen ari da jada.

Sentikortzearen, prestakuntzaren eta jardunbide egokietan oinarritutako herritarren eta Tokiko Administrazioaren egunez eguneko ohitura aldaketa udalerrriaren tokiko iraunkortasun prozesuaren giltzarria da.

Burutzen ari diren politika zenbaitzuen zeharreko izaerak **barne koordinazio are gehiago indartzeko** beharra agerian uzten du.

AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

2004 urtean Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko udalerrriak (Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Ugao-Miraballes, Urduña, Orozko, Zaratamo eta Zeberio) **Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal** sortu eta Tokiko Agenda 21 prozesuak era bateratuan diseinatzeko asmoz elkartu ziren.

2006 eta 2007an diseinu fasea behin amaitu ondoren (diagnostikoa idaztea eta Ekintza Planak onartzea) eta Aalborgeko Gutuna sinatu ondoren, udalerrri guztiek **Udalsarea 21**eko partaide izatera pasa ziren, Jasangarritasunerako Udalerrrien Euskal Sarea.

2011 urtean Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek **Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoa** abian jartzen du. Hamaika udaletxei (lehen aipaturikoak gehi Basauri) eta Nerbioi-Ibaizabalgo eskualdeko herritarrei orokorrean, zerbitzua, baliabideak eta ekintzak eskaintzeko asmoz sortutako ekipamendua da.

Tokiko Agenda 21a abian jarri denetik udalerrietan eskualde mailako zenbait proiektu eta ekintza garatu dira. Ondoren Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren zerbitzu nagusienak aurkezten ditugu, 5 lan esparruetan banaturik:

1. **Tokiko Agenda 21**: Tokiko Ekintza Planen gauzapenean, ezarpenean eta ebaluazioan laguntza.
 2. **Industriako Agenda 21**: Eskualdeko enpresetan ingurumen hobekuntzarako laguntza.
 3. **Eskolako Agenda 21**: Eskualdeko eta udalerriko ikastetxeen iraunkortasunerako eta kalitaterako hezkuntza Programa.
 4. **Hondakinen kudeaketa**: Eskualde mailako bilketa zerbitzua: etxeko olio, inpresio hondakinak eta mugikorak; pilak eta akumuladoreak; erabilitako arropa eta *probetxagarriak diren bestelako etxeko objektuak*.
 5. **Mugikortasun iraunkorra**: Eskualdeko Iraunkortasun Planean aurreikusitako ekintzen ezarpena.
- 6 urte igarota 1go Ekintza Plana onartu eta bere gauzapena hasi zenetik, Udaletxeek Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren bitartez, berrikuspen prozesua abian jartzea erabakitzen dute, **aurreko plana ordezkatzeko duen eta udalerriek dituzten behar eta baliabideekin bat etorriko den plan berri bat egiteko**.

Testuinguru honetan eta berrikuspen prozesu honen lehen fasearen ondorioz, 2012 urtea bitartean Arakaldoko Udalak udalerriko *Gizarte, ekonomia eta ingurumen Diagnostikoa* egin du.

HELBURUAK

Berrikuspen prozesuaren **helburu nagusia** datozen 8 urteetan udalerrian garatuko diren lehentasunezko jarduera esparruak barne hartzen dituen Tokiko Ekintza Plan bat definitzean datza. Gainera, zera lortu nahi da:

- Planaren helburuak eta ekintzak iraunkortasunarekin erlazionaturiko legeriaren, teknikaren ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren bilakaerara egokitu.
- Plana iraunkortasunaren tokiko kudeaketaren bilakaerara egokitu.
- Planaren ezarpen maila nolakoa izan den arabera Plana gaika egokitu.
- Plana udalerraren giza, ingurumen eta ekonomia bilakaerara egokitu.
- Planean aurretik kontutuan hartu ez ziren gai tematiko berriak sartu.
- UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo udalerrien artean egindako eskualde mailako hausnarketaren bitartez Eskualde mailako Ekintza Plan bat zehaztu.

Berrikuspenaren lehen fasean, **helburu zehatzak** hauek dira:

- Lurralde, ingurumen, komunikazio, parte-hartze eta gai sozio ekonomikoen inguruko azterketa bat egin ondoren balorazioa egiteko.
- Balorazio horretatik abiatuta, Ekintza Plan berriaren lehentasunezko jarduera esparruak ezarri.
- Aurreko Planean indarrean dauden eta garrantzitsuak diren ekintzak identifikatu.
- Udalerriko eta udalaz gaindiko planak eta programak identifikatu Plan berrian sartu ahal izateko.
- Helburu estrategikoak zehaztu Plan berriaren formulazioa egiteko.
- Interesa duten gizarte eta ekonomia eragileen eta herritarren ikuspegia txertatu.
- Gaian eskumenak dituzten politikari eta teknikarien balioztatzea bermatu.

LAN PROGRAMA

Tokiko Ekintza Planen berrikuspena egiteko erabilitako oinarrizko metodologia “**EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa**” oinarritzen da. Gida horrek dionari eutsiz, Tokiko Ekintza Plan baten berrikuspenak honako faseak ditu:

0. Zehaztea eta abian jartzea.
1. Oinarrizko informazioa biltzea eta barneratzea.
2. Sintesi Diagnostikoa.
3. Planaren Formulazio estrategikoa.
4. Ekintzen ezaugarritzea.
5. Plana kudeatu, jarraipena egin eta onartzeko lanabesen diseinua.

Metodologia hori aintzat hartuta, **lan teknikoa, barne koordinazioa eta parte-hartzea eta herritarren parte-hartze ekintzak** kontutan hartu dituen **Lan Programa** bat garatu da:

- **Lan teknikoak:** Aholkulari Taldeak burutuak proiektuko Zuzendaritza Politikoa eta Teknikoa eta teknikariek elkarlanean.
- **BARNE koordinazio eta parte-hartze lanak:** Udal teknikariek bakarkako elkarrizketen bitartez edo talde lanaren bitartez Hirigintzako Batzordearen bitartez.
- **HERRITARREN PARTE-HARTZE ekintzak:** herritarrei zuzendutako pertzepzio inkesta baten bitartez, web galdetegi baten bitartez eta Herritarren parte-hartze Foroaren bitartez (*herritarren ekarpenak dokumentuan espresuki aurretik eta kurtsibaz doan (*) bitartez seinalatu dira.*)

ARLO TEMATIKOAK

Diagnostikoa ondoren aurkezten ditugun 17 arlo tematikoz osatzen da:

GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

1. Biztanleria
2. Ongizatea eta gizarteratzea
 - Zuzentasuna eta gizarte zerbitzuak
 - Genero berdintasuna
 - Elkarbizitza
 - Osasuna eta osasun zerbitzuak
 - Telekomunikazioak eta IKT-etara irismena
3. Hezkuntza, euskara, kultura eta kirola
4. Etxebizitza
5. Garapen ekonomikoa eta lan merkatua
 - Ekonomia egitura eta jarduera maila
 - Lehen sektorea
 - Bigarren sektorea
 - Zerbitzuen sektorea
 - Turismo eta ostalaritza sektorea
 - Enplegua eta lan merkatua

NATUR BALIABIDEAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

9. Ura
10. Hondakinak
11. Energia
12. Ingurumen kalitatea (atmosfera, zarata eta lurzorua)
13. Arriskuaren kudeaketa eta jarduera ekonomikoak
14. Erosketa publikoa eta udal administrazioa ingurumen kudeaketa
15. Klima aldaketa eta inpaktu orokorra

LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK


6. Lurraldea eta plangintza
7. Natura eta bioaniztasuna
8. Mugikortasuna eta garraioa

SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA BARNE KOORDINAZIOA

16. Komunikazioa, sensibilizazioa eta herritarren parte-hartzea
17. Barne koordinazioa eta zeharkakotasuna.

Alor tematiko bakoitza azpi-alorrez osatua dago eta hauetako bakoitzean **diagnostikatutako alderdi klabeak kontutan harturik balorazio kualitatiboa eta orokorra egin da**, helburua honakoa da:






- Beste azpi-alorrekin konparatuz era positiboagoan edo negatiboagoan baloratzen diren azpi-alor horien inguruko ikuspegi orokorra eskaini.
- Lehentasunezko jarduera esparruen identifikazioa erraztu.
- Udaletxeko teknikari, politikari eta herritarrek orokorrean diagnostikoa irakurri eta eztabaidatu dezaten sustapena egin.

<p>BALORAZIOA</p>  <p>Ez baloragarria</p>	<p>Balorazioa egiteko irizpideak "EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa" agertzen dira.</p>
--	---











EBALUAZIO GLOBALA ETA LEHENTASUNEZKO ESKU-HARTZE JARDUERA ESPARRUAK

GIZARTEA ETA EKONOMIA
















1. BIZTANLERIA

Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
1.1. Lurraldearen testuinguruan kokatzea		<ul style="list-style-type: none"> Arakaldo UT21 Nerbioi-Ibaizabaetik populazio pisu gutxien duen udalerrria da (populazioaren %1,19a). Urte batzuetan zehar populazioa etengabe galduz joan ondoren, 2010 urteaz geroztik joera aldatzen da gertaera honek etxebizitzak eraikitzeari loturiko erakarpen politika bati erantzuten diolarik. 	✓ Ez da eskuhartzeko lehentasunezko arlorik identifikatu.
1.2. Biztanleriaren bilakaera		<ul style="list-style-type: none"> Arakaldoko biztanleria flotante ugaria dela jotzen da. Zaharkitze indizea nabarmenki jaitsi da 2003 eta 2011 bitartean, baina UT21 Nerbioi - Ibaizabaleko altuena izaten jarraitzen du eta Bizkaia eta EAEko batez bestekoa baino handiagoa. 	
1.3. Egitura demografikoa		<ul style="list-style-type: none"> Hurrengo hamarkadetan Arakaldoko populazioak zahartzen jarraituko du baina Udaltaldeko gainontzeko udalerrietan baino gutxiago. 	
1.4. Mugimendu naturala eta migratzailea		<ul style="list-style-type: none"> 20 urte bitarteko biztanleria gazteak %23a suposatzen du, zifra hau eskualdeko, probintziako eta autonomia erkidegoko batez bestearen gainetik dagoelarik. Gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago dira, 20-64 urte bitarte gizonezkoen portzentaia nabarmenduz. 	
1.5. Populazioaren banaketa, lurraldeka		<ul style="list-style-type: none"> Atzerritar maila 3,13 portzentaje puntu hazi da 2003 eta 2011 bitartean, UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren azpitik dagoelarik. Arakaldok bertako populazio oso altua dauka bere bi populazio guneeetan baina etxebizitza dentsitate baxua dauka bizitegi lurzoruan. 	






2. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA

Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
2.1. <i>Gizarte arazoak</i>		<ul style="list-style-type: none"> Udalerrriak ez du gizarte arazo larririk aurkezten. 2003 eta 2008 artean, Arakaldok Oinarrizko Errentaren jasotzaile diren familien kopuru altuena aurkezten du UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko udalerrri guztietatik. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Genero berdintasunerako zeharreko ekintzak beste eskuduntza arlo batzuk medio garatu. ✓ Ekipamenduekiko Irisgarritasun Plan bat garatu (ikusi Mugikortasuna). ✓ Hiritarren segurtasunaren segimendua eta Ertzaintzarekin koordinazioa. ✓ Teknologia berrien eskuragarritasuna hobetu eta haien inguruko prestakuntza indartu.
2.2. <i>Gizarte zerbitzuak eta ekipamenduak</i>		<ul style="list-style-type: none"> 2011n Gizarte larrialdiko laguntza eskakizun guztiak bete dira dagoen aurrekontuarekin. 	
2.3. <i>Udalak gizarte zerbitzuetan eta elkartasun ekintzetan egiten duen gastu ekonomikoa</i>		<ul style="list-style-type: none"> UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko beste udalerrri batzuekin udalerrri arteko akordio bat dauka ongizate eta gizarte inklusio zerbitzuak eskaintzeko. Udalerrrian ez dago ekipamendu sozialik. Berdintasunaren arloan ez da existitzen zerbitzu espezifiko bat baina tratu txarrak egonez gero deribazio programak daude (aholkularitza juridiko eta psikologikorako). 	
2.4. <i>Berriarazo gizarte politikak</i>		<ul style="list-style-type: none"> Ongizateari zuzendutako Udalaren batez besteko aurrekontua nabarmenki handitu da 2001 eta 2008 artean, 2008an UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko eta Bizkaiko (131 €/biz) batez bestekoen ginetik kokatuz. 	
2.5. <i>Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egoera berdintasuna, lanaren esparruan</i>		<ul style="list-style-type: none"> Udaletxeak bere aurrekontuaren zati bat elkartasun jardueratara bideratzen du. Udaletxeak aukera berdintasuna izateko berriarazo politikarik ez du garatu atzeritarrentzat. 	
2.6. <i>Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egoera berdintasuna, udal esparruan</i>		<ul style="list-style-type: none"> Irisgarritasuna betetzen duen udal ekipamendu eta eraikinen portzentajea UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren oso azpitik kokatzen da. Arakaldok ez dauka Irisgarritasun Planik. 	
2.7. <i>Genero berdintasuneko politikak</i>		<ul style="list-style-type: none"> Ez da aukera berdintasunera zuzenduriko inolako berriarazo udal politikarik garatu. Ez dauka Berdintasun Planik. 	
2.8. <i>Bizikidetzeta eta herritarren segurtasuna</i>		<ul style="list-style-type: none"> Arakaldo ez da herri gatazkatsua. 2010ean ez da ageri udalerrian gertatutako istripuetan harrapatutako oinezkorik. Arakaldon kohesio sozial ona existitzen da. 	
2.9. <i>Ekipamenduak eta osasun langileak</i>		<ul style="list-style-type: none"> Nahiz eta osasun zentro eta farmaziarik ez egon Arakaldoko udalerrian, osasun zerbitzuak onak direla uste da. 	
2.10. <i>IKTetarako eta telekomunikazioetarako irisgarritasuna</i>		<ul style="list-style-type: none"> Telekomunikazioetarako irisgarritasunak zailtasun batzuk aurkezten ditu udalerrian. 	










3. HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA









Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
3.1. Hezkuntza eskaintza		<ul style="list-style-type: none"> • Arakaldon ez dago ikastetxerik. • Azken 3 urteetan hezkuntza eskaeraren handikuntza nabarmena antzematen da, batez ere 0 eta 4 urte bitartean. • Arakaldoko biztanleria euskaldunaren portzentajea (%42,57) UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren antzekoa da. • Euskararen presentzia udalerrian handitzen doa nahiz eta Arratia-Nerbioi eskualdeko batez bestekoaren azpitik egon beti. • Nahiz eta biztanleria euskaldunak goranzko joera izan ez da erabileran aldaketarik antzematen. • Ez dago zentrorik euskara irakatsi edo bultzatzeko. • 2012an euskara ikastaroak eman dira udalerrian. • Udalerririk euskara teknikari bat dauka, UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko beste udalerririk batzuekin partekatua, eta 2008tik hemendik gutxira berrikusi behar den Euskara Biziberritzeko Planarekin. • Euskara Erabiltzeko Plana dago eta Bai Euskarari Ziurtagiria. • Udal jardueran euskararen presentzia baxua da. • Udaletxeak kultur ondare ukiezina biltzeko asmoa dauka. • UT21 Nerbioi-Ibaizabal mailan, hizkuntza ondare, ondare etnografiko eta kulturaren biltze eta difusio lan handia ari da egiten. • Udalerrian dagoen kultur ekipamendu bakarra ludoteka da. • Arlo honetan Laudiok asetzen ditu Arakaldoko biztanleriaren beharrak. • Udaletxeak jai giroko jarduerak eta jardura ludikoak antolatzen dituzte biztanleriaren erabilerarako espazio ireki bat dauka. • Kultur jardueren programa badago, bizilagun berriak egindako ekarpenekin aberastuta. • Kultur jardueri biztanleriak ematen dien erantzuna ona da. • Udaletxeak dauzkan kirol ekipamenduak Laudiok dauzkanekin osatzen dira. Pilotalekua handitzea dago aurreikusita. • Udal ekipamenduen erabilera altua da. • Jardura formatiboko eskaintzarik ez dago kirol esparruan ezta kirol elkarterik ere. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Administrazioan egiten den euskararen erabilera normalizatu Bai Euskarari Ziurtagiriaren neurriak ezarriz. ✓ Bolatokiko eta udal pilotalekuko instalazioak hobetu eta handitu eta baita beraien inguruan egiten den kudeaketa ere. ✓ Beste herrietako kirol instalazioak erabili ahal izateko hitzarmenak bultzatu. ✓ Kirol eta kultur asoziazionismoa bultzatu.
3.2. Hezkuntza eskaera			
3.3. Eskaintza-eskaera balantzea			
3.4. Herritarren heziketa emaitzak eta heziketa maila			
3.5. Euskalduntze maila			
3.6. Ekipamendua eta baliabideak			
3.7. Udal politikak			
3.8 Euskara udal jardueran			
3.9. Euskara eta kultura			
3.10. Kultura ekipamenduak eta horien erabilera			
3.11. Kultura jarduerak eta partaidetza			
3.12. Herritarren dinamika kulturala			
3.13. Kirol ekipamenduak eta horien erabilera			
3.14. Kirol jarduerak eta partaidetza			
3.15. Herritarren kirol dinamika			

4. ETXEBIZITZA

Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
4.1. Etxebizitza-parkearen ezaugarriak		<ul style="list-style-type: none"> Etxebizitza dentsitatea bizitegi lurzoruan %6a handitu da 2004 eta 2010 artean. Egin berri dauden promozioetan dentsitate baxuko etxebizitza da nagusi. Udaletxeak alokairuko 3 etxebizitza dauzka. 43 etxebizitza huts daude. Udal etxebizitza parkearen %5ak gutxi gorabehera zaharberritze beharra du. 	<p>Udal eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Alokairu berrien aurrean, alokairuko udal etxebizitzaren prezioak berrikusi. ✓ Zaharberritzea sustatu eta informazioa indartu zaharberritze eta efizientzia energetikoaren inguruko laguntzen gainean.
4.2. Etxebizitzaren antzinatasuna eta zaharberritzea		<ul style="list-style-type: none"> 2010ean 10 etxebizitza zeuden exekutatzeko, barne hazkunderako nahikotzat jotzen dena. 2007 urteaz geroztik 2010 urtera arte emandako lizentzia berrien kopurua asko handitu zen datu hau eskualdeko, probintziako eta autonomia erkidegoko batez bestearen oso gainetik egonda. 	
4.3. Higiezinaren eskaintza: etxebizitzaren eraikuntza		<ul style="list-style-type: none"> 2004 eta 2010 bitartean ez dira babeseko etxebizitzak eman eta ez da aurreikusten egingo direnik eskaera eta lurzoru falta dela eta. Bestalde, posible da alokairuzko udal etxebizitzak eskaintzea. Etxebizitza konkretu bateko eskaerarik ez dago, baina udal jabetzako alokairuzko etxebizitzena egon daitekeela irizten da. 	
4.4. Etxebizitza beharra eta eskaera eta eskaintza-eskaeraren balantzea		<ul style="list-style-type: none"> Etxebizitzaren prezioaren inguruko daturik ez dago, baina inguruko herrien antzekoa dela uste da. Udaletxearen alokairuzko etxeen prezioak oso baxuak dira, ia sinbolikoak, eta urte askotan zehar ez dira berrikusi. Planeamenduak eskaera asetzeko etxebizitzaren kopuru eta motaren exekuzioa jasotzen du. 	
4.5. Erakunde arloa		<ul style="list-style-type: none"> Katalogatu gabeko baserri zaharren zaharberritzea sustatu zitekeela uste da. EEE-ren bitartez ingurutzailentzat laguntzak ematen dira zaharberritzean. 	








5. GARAPEN EKONOMIKOA ETA LAN MERKATUA



Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
5.1. Eredu ekonomikoa		<ul style="list-style-type: none"> • Industri sektoreak, ekoizpenaren atal nagusia izanik, beheranzko joera agertzen du. • BPG per capita handiena duen eskualdeko udalerrria da. 	<p>Udal eta gairikiko eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Enpleguaren sustapenerako eta ekonomi garapenerako eskualdeko zerbitzu mankomunatuak, zerbitzu hau ez duten udalerrientzako, sortzeko aukera aztertu. ✓ Tokiko enpresek lan poltsa erabiltzea bultzatu, tokiko enplegugarritasuna bultzatzearren. ✓ Enplegu eske dabilzan sektoreen beharrei egokitutako prestakuntza politikak bultzatu. ✓ Lanbide heziketako eta prestakuntza jarraitua eskaintzen duten zentroekin elkarlanean aritu enpleguaren eskaintza eta eskaeraren arteko harremana optimizatzeke. ✓ Emakumea lan munduan sartzeko politikak bereziki indartu.
5.2. Jarduera ekonomikoaren maila orokorra		<ul style="list-style-type: none"> • Bigarren sektorea nagusitzen da eta hirugarren sektorea zein eraikuntzarena handituz doaz. Nekazaritza sektorea ia desagertuta dago. • Establezimenduen saldo gordina negatiboa izan da 2010 eta 2011 urteetan. • Establezimendu berrien sorkuntza tasak joera irregularra izan du. 	
5.3. Familiaren ongizate ekonomikoa maila		<ul style="list-style-type: none"> • Guztizko errenta pertsonala haziz joan da, UT21 Nerbioi-Ibaizabalek eta Bizkaia dituzten balioen gainetik beti. • Ganadu unitate guztietan oro har jaiskera gertatu da. 	
5.4. Lehenengo sektorearen egitura		<ul style="list-style-type: none"> • Oro har, ez dago belaunaldi ordezkapenik gaur egun eskualde mailan. • Industri sektoreak Balio Erantsi Gordinari egiten dion ekarpena 2008an %68,70koa da. 	
5.5. Lehenengo sektorearen bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa		<ul style="list-style-type: none"> • Eraikuntza sektorearen pisu erlatiboa UT21 Nerbioi-Ibaizabalek duena baino txikiagoa da. • Zerbitzu sektoreak ekonomi jardueraren %22,86 hartzen zuen 2008an. • Udalerriko establezimenduen %60ak zerbitzuen sektoreko jarduerak garatzen ditu. 	
5.6. Bigarren sektorearen egitura		<ul style="list-style-type: none"> • Arakaldok ez du txikizkako merkataritzarik. • Mila biztanleko turismorako logela gehien dituen eskualdeko udalerrria da. • Ez dago turismorako informazio punturik. 	
5.7. Bigarren sektorearen bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa		<ul style="list-style-type: none"> • Gau igarotzea udalerrian lan arazoiek bultzatua da. • Udaletxeak uste du lehen sektorea nahiz hirugarren sektorea indartu egin behar direla eta turismo sektoreak heldutasun gehiago lortu behar duela. • 2010ean jarduera tasa %50,91ekoa zen, UT21 Nerbioi-Ibaizabalek zuena baino handiagoa. 	
5.8. Zerbitzu sektorearen egitura		<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen jarduera tasa (%41,18) goranzkoan mantentzen da nahiz eta 2010ean UT21 Nerbioi-Ibaizabal, Bizkaia eta EAEn batez bestekoen azpitik egon. 	
5.9. Zerbitzu sektorearen bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa		<ul style="list-style-type: none"> • 2006an okupazio tasa eskualdeko batez bestekoaren zertxobait azpitik zegoen nahiz eta Bizkaia eta EAEn gainetik egon. 	

Azpieremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
5.10. Turismo eta hostalaritza sektorea. Azpiegitura turistikoa.		<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzuen sektorea da okupazio pisu handiena duena (57,69%), industria sektorea atzetik duelarik (%26,92). Lehen sektoreak % 3,84ko portzentajea du. • 2011ko azken hiruhilabeteen langabezi tasa %14,74koa zen. • Enplegu eskatzaileen %60ak 30 eta 44 urte bitarte dauzkate; %29 emakumeak ziren. 	
5.11. Turismo baliabide eta erakargarritasunak		<ul style="list-style-type: none"> • Lana hornitzen duen udalerrri gisa, Seguritate Sozialerako afiliazio tasa %140,59ean kokatzen da 2010ean, eskualdeko batez bestekoaren zenbatekoaren oso gainetik (%58,02). 	
5.12. Enplegua eta lan merkatua. Biztanleria aktiboa.		<ul style="list-style-type: none"> • Gizonen afiliazio tasak emakumeena baino nabarmenki handiagoa izaten jarraitzen du. • Arakaldon bizi den biztanleriaren afiliazio tasa 2010ean (%38,61) 2009koa baino zertxobait txikiagoa da eta UT21 Nerbioi-Ibaizabalen 2010ean erregistratutakoa baino txikiagoa (%44,07). 	
5.13. Biztanleria okupatua		<ul style="list-style-type: none"> • Arakaldon bizi den biztanleriaren afiliazio tasan dagoen genero leizea aurretik aipatutakoa baino handiagoa da (%50,88, %22,73ren aurrean). 	
5.14. Langabezia		<ul style="list-style-type: none"> • Mila biztanleko kontratu kopurua 375ekoa da, eskualdeko batez bestekoa baino handiagoa. 	
5.15. Kontratazioa		<ul style="list-style-type: none"> • Kontratazioen errotazio indizeak, zeina UT21 Nerbioi-Ibaizabalek duenaren batez bestekoaren azpitik mantentzen den, 2008 eta 2010 artean jaiskera berria jasan du. 	
5.16. Laneko mugikortasuna, nork bere buruari eustea eta autosufizientzia		<ul style="list-style-type: none"> • Lan autokontentzioaren tasak hazkuntza arina jasan zuen 1996 eta 2001 artean. • Autosufizientzia tasa modu arinean jaitsi zen Arakaldon 1996 eta 2001 bitarte. • Ez dago eskualde mailan orientazio eta enplegu zerbitzurik. 	
5.17. Enplegu eta prestakuntza politikak		<ul style="list-style-type: none"> • Udaletxeak ez du orientaziora, prestakuntzara eta enplegura zuzenduriko politikarik garatu. • Ez dago ezta ere enplegu sustapenerako edo ekonomi dinamizaziorako planik. • Udaletxeak lan poltsa bat dauka. 	






LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK

6. LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA








Azpieremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
6.1. Lurralde eremua		<ul style="list-style-type: none"> • Arakaldo Laudioko Eremu Funtzionalaren baitan dago. • Ardatz nagusiak AP-68, BI-4521 eta BI-625, eta Bilbao-Madrid burdinbidea dira. • Lurzoru Urbanizaezinak azaleraren %91 hartzen du. Lurzoru honen %79 baso lurrak dira. 	<p>Udal eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udal planeamenduaren berrikuspenarekin loturik ondorengo helburuak hausnartu: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Tokiko interesekoak diren eraikinen katalogoa barneratu udal planeamenduan. ✓ Planeamenduan goi mailako planeamenduaren irizpideak txertatu. ✓ Elexalde-Madariagako herrigunea sustatu udalerrri guztiaren erakargarritasun gune gisa. ✓ Industria lurzoruen erabilerak aldatu, jarduerak birkokatze leku berriak jarritz ingurumen inpaktua txikituz eta ardatz infraestrukturalak berriz diseinatuz herri kalitatean efektu negatiboa ekiditeko. ✓ Behar gehien duten auzo eta gunetan hirigintza erreformak exekutatu. ✓ Zaharberritu gabe dauden arkitektura ondarearen elementuen zaharberritzea. ✓ Hiri planeamenduan iraunkortasun irizpideak (dentsitateak, erabileren dibertsifikazioa, ingurumen eraginak, etab.) txertatzen jarraitu. ✓ Nekazaritzarako bokazioa duten lurzoruen babes jarduerak garatu.
6.2. Udal lurzoruaren egitura organikoa eta erabilerak		<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitzarako lurzoruaren pisu erlatiboa UT21 Nerbioi-Ibaizabalen dagoenaren txikiena da. • Hiri eta industri lurzoria Ugarrizako Irlan kokatzen da (%48an finkaturik dago). • Artifizializaziorik handiena (udalerrriaren lurraldearen %12) haran hondoan gertatu da. 	
6.3. Hiri egitura eta ehundura		<ul style="list-style-type: none"> • Mendi azalera handiena jabego pribatukoa da. Gehiena egurretarako pinudiez eratutako baso sail landatuez osatuta dago. Gainontzekoa erabilera publikoko mendiak dira, haritz eta pagoz osatuak batez ere. • Lurzoru urbanizazinen %16 nekazaritza eta abeltzaintzarako da. • Tokiko bi ondoko entitateetan banatuta dago: Elexalde-Madariaga eta Ugarrizako Irlaren auzoa. 	
6.4. Hiriko eta hiri inguruetako berdeguneak		<ul style="list-style-type: none"> • Baditu hainbat tokiko entitate txiki baina haietako bakar batek ere ez du landa gune kalifikaziorik. • Etxebizitza sakabanatuetan bizi den biztanleria eite gutxikoa da. • Eremu libreen sistema orokorrak estandarrak betetzen ditu. 	
6.5. Hiripaisaia eta gune hondatuak		<ul style="list-style-type: none"> • Hiri parkeek eta berdeguneek ez dute euren artean konektaturiko sare bat eratzen baina bai ordea nekazaritza eta baso lurzoruarekin konektaturikoa. • Ez da endakatutako paisaia edo eremurik nabarmentzen. • Bada elementu bat Monumentu Multzo izateko proposatua eta hainbat dira Udalerrri mailako interesa dutenak. Udal planeamenduak ez du bere baitan hartzen tokiko arkitektura intereseko eraikinen Katalogorik. 	
6.6. Ondare arkitektonikoa eta kulturala		<ul style="list-style-type: none"> • LZPak aisiarako eremu izaera duen Nerbioiko Parke Lineala garatzea aurreikusita dauka. Era berean, urpetzeko arrisku gehien duten tokiak hobekuntza eta berreskurapenerako gune gisa ezartzen ditu eta irizpide orokor gisa planeamenduan lurzoru hiritargarran ekonomi jardueretarako sektore berririk ez sartzeari ezartzen du. 	
6.7. Lurralde eta sektore antolamendua			






Azpieremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
6.8. Hiri antolamendua		<ul style="list-style-type: none"> LAP desberdinek ekonomi jardueri begira “neurritz haztekoa” gisa eta etxebizitzaren sustapen publikora bideratutako lurzoruen garapen txikiko gisa jotzen dute Arakaldoko udalerria. Azpiegitura linealek (autopistek, oinarritzko errepideek eta trenbideak) Arakaldoko herrigunea bitan zatitzen dute. 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Eraikuntzan eta zaharberritze lanetan energi eraginkortasuneko irizpideak txertatu.
6.9. Antolamenduan eta eraikuntzan iraunkortasun irizpideak sartzea		<ul style="list-style-type: none"> Goi mailako planeamenduen irizpideak ez dira herri planeamenduan txertatu. Planeamenduaren berrikuspenari dagokionean, eraikuntza eta etxegintzan irizpide estetikoak txertatu beharko lirarteke. Planeamenduaren helburua da Elexalde–Madariaga herrigunea erakarpen foku gisa gehiago indartzea. Industri lurzoruan erabilerak aldatzea beharrezkoa dela uste da, jarduerak birkokatzeko eta hauen ingurumen eragina txikitze guneak atonduz. Era berean, azpiegituren ardatzak birdiseinatu behar direla ikusten da, hiri kalitatean izan dezaketen eragin kaltegarria ekiditearren. Udalerriko planeamenduak berariazko jasangarritasun irizpiderik ez du baitaratzen. Ez dago energi eraginkortasuneko ziurtagiririk duen etxebizitzarik. 	<p>Udalaz gaindiko eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Nerbioiko parke lineala ekologi korridore gisa bultzatu.

7. BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA

Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
